

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

**LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA**

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Basoilo txikia berreskuratzeko kanpainari esker, desagertzeko zorian dagoen hegazti honen lau eme finkatu dira Nafarroan

Erdialdeko nekazariak eta Tafallako Udalak 22 lursail lugorri utzi dituzte

Asteartea, 2018.eko irailak 4

Landa Garapen,
Ingurumen eta Toki
Administrazio

Departamentuak eta GAN-NIK enpresa publikoak 22 lursail lugorri utziz basoilo txikia berreskuratzeko bultzatu duten kanpainari esker, desagertzeko zorian dagoen espezie honen lau eme finkatu dira Foru Komunitatean. Ekimen hau urte hasieraz geroztik garatu da

Nafarroan zereala laboratzen duten nekazariekin batera, "lurraldea zaintzeko kontratuen" bitartez, zenbait lursail lugorri utziz, basoilo txikiaren ugalketarako habitat gisa horietan ugaltzeko aukera izan dezan. Zehazkiago esanda, esperientzia 64 hektareako guztizko azalera duten 9 nekazariaren 22 lursailetan egiten ari da Lerinen (6 lursail), Andosillan (7) eta Falcesen (7). Tafallako Udalak ere ekimenean parte hartu du herri-lurretan dituen sei lursail lugorri utziz.

Lau eme eta kumeez gain, jarraipena egin den aldi osoan, arren presentzia ere antzeman da une oro, eta basoiloak detektatu dira kumeekin batera lugorri horietan. Berrikitan ganga azpibeltzen bi bikote instalatu dira lursail horietako batean.

Basoilo txiki arrunta (*Tetrax tetrax*) desagertzeko zorian dagoen estepako hegaztia da, Mehatxatutako Espezieen Espainiako Katalogoan nahiz Mehatxatutako Espezieen Nafarroako Katalogoan "kalte-arriskuko" kategorian ageri dena. Azken urteotan, basoilo txikiaren populazioak dexente behera egin du Nafarroan. 2005-2016 epealdian, ale kopurua % 80 inguru murriztu da, espeziea galtzeko zorian utziz.

Erdialden gauzaturiko esperientzia hau, Departamentua estepako hegaztiak kontserbatzeko lantzen ari den planari gaineratuko zaio, lugorriak laboratu gabe uzteko nekazariekin mantendu beharreko lankidetzaren bermatzeko administrazioeko mekanismoak ezartzeaz gain.

Lugorria, giltzarria

Ohiko lugorriak –urte bateko edo biko epean birsortzeko erein gabe uzten



Basoilo txikiaren alea (Egilea: Eduardo Blanco).

diran laborantza-lurrak– funtsezkoak dira estepako hegazti askoren kontserbaziorako, babesa, elikadura eta habia jartzeko habitat egokia eskaintzen baitizkiete espezie ugariari. Hainbat ikerlanen arabera, basoilo txikiak lugorriak nahiago ditu ugalketarako, eta erabat frogatuta dago berezko landare-geruza duten lugorriak mantentzeak estepako hegaztiei ugalketako une kritikoak bukatu arte ekarri ohi dizkien ondorio positiboak.

Basozaingoak basoilo txikiaren ugalketari 2018ko denboraldian egindako jarraipenetan, basoilo txikiaren ale ugaltzaileak detektatu dira lugorri utzi eta espeziearen ugalketarako landare-geruza egokia zuten zenbait lursaili atxikita.

Ingurumenetik adierazi dutenez, ez da aski lursailak laboratu gabe uztea, izan ere, espezieendako duten balioa estu-estu lotuta dago laborantza mota eta sasoiaren arabera antolatutako egutegiarekin eta kudeaketarekin, eta lugorriaren iraupenarekin.

“Lurraldea zaintzeko kontratuen” bitartez, lankidetzeta-ildoak ezarri nahi izan dira lugorri utzi eta basoilo txikien presentzia egiaztatua duten lursailen jabeen ordainsariak emateko, lugorri horiek espeziearen ugalketarako habitat gisa erabiltzeko baldintza egokietan mantenduko direla bermatuz.

Hautaturiko lursailetan, abeltzaintza lanak baztertu dira, ez da sakoneko edo azaleko lanborantza lanik egin eta ez da herbizidarik erabili ale ugaltzaileak aurkitu eta uztailearen 31ra bitarteko epean. Nekazari horiek jarraipena egiteko galdetegien bitartez emandako informazioa funtsezkoa da talde teknikoentzat eta esparru honetako ezagutza hobetzeko, lugorri utzitako lursailak basoilo txiki arruntaren harrera-leku bihurtzeko bete beharreko baldintza egokiak zehazten laguntzen dute.

Estepako habitata hobetzeko laguntzak

Ingurumen Departamentua Nafarroako Erdialdean garatzen ari den esperientzia hauez gain, Landa Garapeneko Departamentuak beste neurri batzuk ere abiarazi ditu 2014-2020ko Landa Garapeneko Programaren barnean. Esaterako, “Nekazaritza-ingurumena eta klima” deritzonaren 10. neurria, 300.000 euroko urteko aurrekontua duena, laboratzeko lurren hektarea bakoitzeko sariak ezartzen dituen, ustiatzietan estepako habitatak hobetzeko konpromisoak mantentzearen truk.

Orain arte ekimen honekin bat egin duten 63 nekazariak estepako hegaztien ziklo biologikoekin bateragarria den laborantza-egutegia finkatu dute, udaberrian lugorri utziz eta otalurrak sortuz laboratutako lursailen mugaldeen. Konpromiso hauek 5 eta 7 urte bitarteko epean mantendu beharko dira ustiatzietan.

Laguntza hauek eskatu ahal dituzte Bargota, Armañanzas, Sansol, Los Arcos, Barbarin, Arroniz, Arellano, Dicastillo, Morentin, Aberin, Villatuerta, Larraga, Tafalla, Erriberri, Beire, Pitillas, Santacara, Murillo el Fruto eta Carcastilloren arteko lerroaren hegoaldean kokatutako lehorreko ustiatzietan estentsiboen titularrek.